

# LAN BATZORDE IREKIAK

## ONGIZATE BATZORDEA

<b>TALDEA</b>			
<b>IRAUPENA</b>	<b>ORDU 1</b>	<b>EGUNA</b>	2018-11-12
<b>GAIA</b>	-	<b>DEIALDIA</b>	20:00

### PARTE HARTZAILEAK

Iñaki Etxezarreta	Endika Igarzabal	Arantxa Bidegain	Eli Elgarresta
Jabier Garcia			

### ERABAKIAK

GAIA	EKINTZAK	ARDURADURA	NOIZKO
<b>APARKALEKUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Ordenantza berezirik ez dago, eta orokorra hartu da kontuan.</li> <li>● Honen arabera, karabana, autokarabana, remolke... guzti hauek beraien zerga ordaintzen dute eta beraz herriko edozein aparkaleku erabili dezakete, edozein kotxeren moduan</li> </ul>		
<b>HAURTZAINDEGIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Hirugarren matrikula lortu da eta beraz, urtarrilen 2an irekiko da berriro haurtzaindegia.</li> </ul>		
<b>ZABORRAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Kontenedore marroia (organikoa) herriguneko zaborgunearan aste honetan jartzekoak dira, jarri ez badute ia.</li> <li>● 28 lagunek soilik eskatu dute organikoarentzako txartela. 3 egun jarri dira txartela eskatzeko, eta beste egun bat jartzea aztertzen ari da.</li> <li>● 28 horietatik 8-10 lagun gutxienez autokonposta egiten dutenak dira. Horregatik, 2-3 hilabeteko epea jarriko da ikusteko ea ze eragin duen, eta errefusa itxiko da erabileraren arabera, asteen behin irekiko delarik.</li> <li>● Itsasok kontu honekin ez du aurrerapenik egin, datorren astean daukaten herri bileran gaia landu behar dutelako. Horregatik, bizilagun afektatuekin urtarrilaren 11an egingo da bilera, Itsasoko ordezkariekin batera.</li> </ul>		
<b>DESFIBRILADOREA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Ikastaroa egin zen eta harrera ona eduki zuen herritarren artean (25-30 lagun).</li> <li>● Hala ere, udaletxean herritar guztien eskura dago desfibriladorea eta bertan daude nola erabili azaltzen duten azalpenak, behar izanez gero.</li> </ul>		
<b>TXAKURREN ORDENANTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Bandoa berriro zabaldu zen herrian eta orain gauza bat bakarrik falta da: jendeak errespetatzea!!</li> </ul>		
<b>ADINEKOENTZAT EGOITZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Ormaiztegin eguneko arreta zentroa ireki dute (ez da "centro de día" bat). Herriko adineko jende batekin sondeo txiki bat egin da ze iritzi daukaten jakiteko, eta herrian bertan zerbait egitea hobetsi da.</li> </ul>		

- |  |   |  |  |
|--|---|--|--|
|  | <ul style="list-style-type: none"><li>● Aurrekontuak eskatzen ari gara astean egun batean 2 orduz elkartzeko programa batekin, dinamizatzaile eta guzti. Helburua, elkartu eta denbora-pasa ekintza batzuk jartzea da herriko adinekoentzat.</li><li>● Zerrenda bat irekiko da interesa duen jendea apuntatu dadin. Asmoa, garraioa eta dena jartzea litzateke pertsona bakoitzak zati sinboliko bat ordainduz.</li></ul> |  |  |
|--|---|--|--|

**HURRENGO BILERA: otsailak 19, 19:00tan**